

**Hala, amaitu dira elikagaien banaketarako sare komertziala saneatzeko operazioak**

## **EROSKI-K 36 HIPERMERKATUKO LOTE BAT SALDU DU 205 MILIOI EUROTAN**

- Saltokiak Carrefourren jabetzakoak izango dira hemendik aurrera, eta horrek bere gain hartuko ditu langileen lan-baldintzak; beraz, operazio honetan lanpostu guztiei eutsiko zaie
- Lehentasunezko negozioak indartzeko egindako Plan Estrategikoarekin bat dator salmenta, eta eragin positiboa izango du epe erdira Taldearen errentagarritasunean
- Hurrengo urteetan, denda propio eta frankiziatu berriak irekiko dira, eta gaur egungo sarearen zati bat berriro egingo da Zurekin eredu komertzialaren arabera; horrela, neutralizatu egin ahalko da denda horien irteerak izango duen eragina, Taldearen salmenten %8,5 osatzen baitute.
- EROSKIren sare komertzialaren hedapena, non iaz 95 irekiera izan ziren, supermerkatu propioetan eta frankiziatuetan oinarrituko da orain arte bezala

Elorrio, 2016ko otsailaren 29a.- [EROSKI](#)k akordioa egin du 36 hipermerkatu ere saltzeko Carrefour banaketa kateari, gehienez ere 205 milioi eurotan. Salmenta akordioa gauzatzeko, onartu egin behar du Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeak, eta hipermerkatuek ohi bezala helduko diote beren jarduerari.

Saneamendu operazio hau bat dator lehentasunezko negozioak indartzeko Plan Estrategikoarekin; horri esker, EROSKI Taldearen errentagarritasun globala hobetuko du, denda sarea optimizatuta. Operazio honetan, lanpostu guztiei eutsiko zaie; izan ere, langileen lan baldintzak subrogatu egingo dira.

EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari nagusi Rosa Carabelek baikortzat jo du operazioa, izan ere "epe erdira positiboa izango baita EROSKIren errentagarritasunerako". Gainera, honela esan du Carabelek: "Operazio honekin, amaitu dira hipermerkatuen eta supermerkatuen sarea saneatzeko planean zetozen desinbertsioak", eta hauxe gaineratu du: "Hemendik aurrera, supermerkatu propioak progresiboki irekitzeko erritmoa berreskuratuko dugu, eta frankizia erako denden hedapena bizkortzen segituko dugu".

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

Toki hauetako hipermerkatuak sartu dira operazioan: Algeciras, Antequera, Ceuta, Fuengirola, Roquetas del Mar eta Velez-Malaga, hegoaldean. Mediterraneoko arkuan, berriz, toki hauetako zentroak: Aguilas, Amposta, Cornella, Cullera, Denia, Lorcan bi, Murtzia, Ondara, Orihuela, Sa Coma, San Javier, Sant Cugat, Santa Pola, Son Cotoner eta Terrassa. Ekialdean, Huescako eta Jakako hipermerkatuak. Kantabriako erlaitzean, Lalingo, Lugonesko, Mieresko eta Santanderko zentroak. Eta erdialdean, toki hauetako hipermerkatuak: Albacete, Ciudad Real, Cuenca, Logroño, Manzanares, Valladolid, Segovia eta Zamora. Era berean, operazioaren parte dira 22 gasolindegi eta zortzi merkataritza gun e saltokiei atxikiak.

Hurrengo urteetan, denda propio eta frankiziatu berriak irekiko dira, eta gaur egungo sarearen zati bat berri egingo da Zurekin eredu komertzialaren arabera, zeina gaur egun %7ko hazkuntzak izaten ari den salmentetan; horrela, neutralizatu egin ahalko da EROSKI Taldearen hipermerkatu sorta horren irteera, Taldearen salmenten %8,5 osatzen baitu. Gasolindegietako erregaiaren salmenta ere kontuan hartuz gero, salmenten %10,9 osatzen du operazioak.

Horretaz gain, EROSKI Xativako hipermerkatua itxiko du hurrengo hilabeteetan.

Denda sorta horren irteerarekin, amaitutzat jo behar dira EROSKI Taldeak bere elikagai banaketaren sare komertzialean egindako desinbertsio operazioak. Hemendik aurrera, sareko dendak irekitzeko, ixteko eta berritzeko kudeaketan hasiko da Taldea, hau da, edozein sare komertzialen berezko eta ohiko kudeaketan.

Operazio honetan, EROSKIren aholkulari aritu dira Corporate Finance de Deloitte Financial Advisory taldea eta DJV Abogados bulegoa.

### **EROSKI Taldeak beste perimetro bat du operazioaren ondotik**

Saneamendu operazio honen ondoren, EROSKI Taldeak 53 hipermerkatu eta 1.288 supermerkatu ditu Espainia osoan elikagaien negozioan; horietatik 467 frankiziak, eta, horretaz gainera, hemeretzi cash&carry. EROSKIren sare komertzialaren hedapen estrategiaren barnean, 95 irekiera izan ziren iaz; estrategia horretan, bereziki lantzen da hurbileko supermerkatuaren formatua.

EROSKI Taldea liderra da honako eskualde hauetan: Galizia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Katalunia eta Balearrak; eta, gaur egun, denda frankiziatuen irekiera plan indartsu batean dihardu gainerako eremuetan, eredu komertzial oso lehiakor baten bidez.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)